

# URDAIBAI

2018  
zenb 14  
.....

© MAGAZINE

## LUZARO BIZITZEAREN ERRONKA

- | URDAIBAICO ALTXOR ARKEOLOGIKOAK
- | BENANTZI BILBAO, ORGANISTA
- | MENDATAKO OLAZARRA BURDINOLA ETA ERROTA

- | ERRENTERIAKO KURTZEROA
- | SUKARRIETAKO PONPAKETA ESTAZINOA
- | GARGANTUA BARRIRO HEMEN



# Arratzu ELKARTEGI LANGUNEA

ARRATZU ZURE LAN-GUNEA BILAKATU!

EKINTZAILEA ZARA, MILAKA IDEIA DAUZKAZU BAINA  
EZ DAKIZU ZELAN ETA NON HASI...

NEGOZIO BAT DAUKAZU ETA ZEURE ENPRESA  
PROIEKTURAKO LEKUA BILATZEN ZABIZ...

## HAUXE DA ZEURE GUNEA, PREZIO ESKURAGARRIAN

Gernikatik 5 minutura, Loiola auzoko  
erdigunean kokatuta, eraikin berezi honetan,  
argitsua eta %100ean hornituta, zuretzako  
lan-gunea izango dozu.

### LANGUNEA:

- 16 lanpostu
- 6 pertsonentzako bilera-mahaia
- 12 pertsonentzako bilera-gela
- Office eta atsedeen-gunea
- Wifi-a

**ERRESERBATU ZURE LAN-GUNEA  
ALOKATU GUNEA ZEURE BILERA EDOTA  
EKITALDIETARAKO**

ZELAN PARTE HARTU

Proiektu enpresariala "Arratzu Elkartegi Langunea"n  
ezartzeko interesatuek hemen kontaktatu:  
azpiegiturak@bizkaia.eus/ Tel. 946 073 700

## Edadea buruan al dago?

Zientifikoen arabera, estresa alde batera utzi eta bizimodu osasungarria garatzea ezinbestekoak dira gazte mantentzeko. Helburu hau erronka bat da Busturialdean be. Bertan, biztanleriaren portzentaia handi bat landa ingurukoa da. Bestalde, zenbait ikerketen arabera herrialde industrializatueta bizi-itxaropena 90 urterarte luzatu ahal da 2030.urtera begira.

Bizi-itxaropenaren luzapena pertsonen bizi-kalidatea hobetu danaren adierazgarri objektiboa da. Gaur egun, 65 urtetik gorako pertsona bat, orain 50 urteko edade bardineko pertsona bat baino askoz be gazteagoa da. Lan-bizitzaren amaieran bakoitzaren egoera eta etorkiuna orain hamarkada batzuek alderatuta oso desbardina da.

Medikuntzaren eta menpekotasunaren prebentzioan asko aurreratu da eta oso garrantzitsuak dira be zahartzaro aktibo bat izatea edota bakoitzaren jarrera. Busturialdean pribilegiatuak gara. Izan be, osasun politikek eta herritarren osasunari zuzendutako kirol politikek garatutako sendazaletasuna sustatzeko ibilbideek batera, geure inguruaren edertasuna eta klima gozoa dauzkagu bertan.

Bestalde, bakarrik bizitzeak edota hiriburutik urrun bizitzeak ez da izan behar isolatuta egotea. Lagunekaz batzea edota familiagaz harremanak mantentzea, modu osasungarrian jan edota jarduera fisikoa egiteagaz batera oso ona da. Espiritua zein maitetasuna elikatzea ondo bizi eta hobeto bizitzeko ezinbesteko osagaiak dira.

University College London-eko zientzialariek egindako ikerketa batek, Amerikako Medikuntzaren Elkarteak (JAMA) publikatutakoa, horrela ondorioztatu dau: dan baino askoz be gazteagoa sentitzen danak, zaharragoak edo edade bardinekoak sentitzen direnek baino gehiago bizitzeko eta osasuntsu bizitzeko aukera gehiago dauzka.

### HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:  
urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com  
tel.: 94 625 06 06

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

### ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo  
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com  
[www.nuevaeuropa.eus](http://www.nuevaeuropa.eus)

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



# AURKIBIDEA



ERREPORTAJEA **04**

**LUZARO BIZITZEAREN  
ERRONKA**




VISIT URDAIBAI **08**

**URDAIBAICO ALTXOR  
ARKEOLOGIKOAK**



ELKARRIZKETA **10**

**BENANTZI BILBAO,**  
organista



LEKUKO **14**

**OLAZARRA BURDINOLA ETA  
ERROTA**



KALERIK KALE **18**

**ERRENERIAKO KURTZEROA**  
Erdi Arotik XXI. mendera



SAL TSA-PORRU **20**

**AZELGA,**  
gogaikarria?



BERDEAN **22**

**SUKARRIETAKO  
PONPAKETA-ESTAZIOA**



BETI-JAI **24**

**GARGANTUA**  
tripandia, onkotea eta parrandazalea



# LUZARO BIZITZEAREN erronka

Gizartearen zahartzeak dakartzan arazoak gizarte aurreratuetan emoten dira eta Busturialdeak be egin behar deutso aurre zahartzearen erronkari. Geure eskualdeak be zahartasunaren aurrean ideia barriak, estrategia barriak eta mekanismoak martxan jarri behar dauz. Horrela, mehatxu bat izan ahal dana aukera baten bilakatzea da erronka, luzaro bizi-kalidadeaz gozatu ahal izateko.

**G**aur egungo datuen arabera, Busturialdean 65 urteko gorako pertsona kopurua biztanleriaren %17koa da (Espainiako Estadistika Institutua- INE 2017). Zentzu honetan, INE-k egindako proiektzioen arabera, 2050. urterako (espaniar Estatuan) 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %30a baino gehiago izango dira (13 milioi) eta laurogeita urtekoak 4 milioitik gora izango dira, pertsona nagusien %30a.

Orokorrean, pertsona nagusien portzentaia arin igo egin da. Busturialdeko biztanleriaren eboluzio aurreikuspenak Espainiako Estadistika Institutuak aipatzen dauenagaz bat datoz, zahartzea antzemanaz.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuko azken txostenaren



arabera (2017), orokorrean, erakunde honen barneko herri guztietan pertsona nagusien kopuruak gora egin dau modu esanguratsu batean, Muxikan izan ezik. Hortaz, biztanleria azken urteetan zahartuz joan da.

Baina, nor da pertsona nagusia? Ofiziala, legezkoa eta gizartean finkatuta dagoenaren arabera, 65 urtetik gorakoak pertsona nagusiak dira. Halanda be, gaur egun, medikuntzaren aurrerakuntzek edade horretako pertsonen osasuna hobetu egin dabe, beste errealidade bat aurkeztuz. Adin horregaz gazte eta aktiboak sentitzen gara! Egia da, 60 eta 80 urtekoen artean egoera asko aldatzen dala. Bizitxaropena igo egin da eta hau dala ta, biztanleriaren zahartzeak gizarte politikak egokitzea eskatzen dau.

Busturialdean be bizi-itxaropena igo egin da eta honek eragin zuzena dauka gizarte zerbitzuetan. Menpekotasun mailaren bat daukeen pertsonen kopurua igo egiten da, beraz, laguntza behar daben pertsonen kopurua. Eskaera hau eskualdeko landakotasunaren mailaren arabera aldatzen da bertan. Mankomunitatearen (BGZM) barneko herrien biztanlegoaren %42,5a landa-inguruan (Errigoiti, Morga, Muxika, Arratzu, Mendata, Murueta, Nabarniz, Kortezubi, Ereño, Elantxobe, Ea, Gauegiz Arteaga, Ibarrangelu) edota herri mistoetan (Busturia, Mundaka, Forua, Sukarrieta) bizi da. Gizarte zerbitzuen politikak eta estrategiak edo hauen kudeaketa eskualdearen errealidadari honi egokituz doa.

Landa-inguruan, jarduera era mailakatuagoan galtzen da eta gizarte-sareek, familiak edota auzokideek, rolgarrantzitasua hartzen dabe, sarritan pertsona nagusien babes-puntu nagusia bilakatuta. *"Hiri-eremutik landa eremuaren arteko diferentzia handia da, errealidadeak ez dauko zerikusirik. Landa eremuan eda-deko jentek tipi tapa dabilen bitartean, ortuko bueltatsue egiten dauen bitartean eta aktibo dauen artean etxetik ez doa, Esfortzu fisikoak gorputza eta burua aktiboak mantentzen dauz, menpekotasuna atzeratuz. Ez dabe eskatzen laguntzarik azkenerarte"*, nabarmendu dau Nerea Llantadak, Busturialdeko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuko teknikariak.

Landa-inguruan desabantailak be badira: herritarren dispertsioak eta baldintza orografikoek zaildu egiten dabe baliabide soziokulturaletara, laguntzetara eta aisialdira iristeko

	2007			2017		
	65 URTETIK GORAKOAK	 BIZTANLERIA		65 URTETIK GORAKOAK	 BIZTANLERIA	
BERMEO	3.407	%20	16.790	3.758	%22	16.766
BUSTURIA	382	%22	1.724	422	%25 ↑	1.659
EA	225	%26	864	220	%26 →	845
ELANTXOBE	133	%29	447	126	%34 ↑	366
EREÑO	69	%26	261	77	%30 ↑	258
GAUEGIZ ARTEAGA	165	%18	876	177	%21 ↑	846
GERNIKA-LUMO	3.170	%19	16.025	3.722	%22 ↑	16.602
IBARRANGELU	168	%28	592	146	%23 ↓	637
MENDATA	82	%21	373	90	%22 ↑	405
MORGA	97	%24	389	103	%26 ↑	402
MUXIKA	345	%25	1.366	330	%23 ↓	1.441
MUNDAKA	394	%21	1.842	467	%25 ↑	1.839
SUKARRIETA	80	%23	339	91	%26 ↑	351
ERRIGOITI	137	%26	508	124	%25 ↓	496
FORUA	199	%20	949	209	%23 ↑	924
KORTEZUBI	87	%21	401	87	%20 ↓	431
MURUETA	55	%18	300	42	%14 ↓	301
NABARNIZ	50	%21	230	41	%16 ↓	249
AJANGIZ	84	%19	436	98	%21 ↑	462
ARRATZU	84	%24	346	92	%22 ↓	410

# Ezagutu Gauegiz Arteaga pausoz pauso





aukera. Gainera, hiri-inguruetan bizi diran seme-alabengandik urruntzeak isolamendu-egoerak eragiten dauz.

Orokorrean, landa-inguruan bizi direnek ez dabe Gizarte Zerbitzuen babesa jaso gura. *"Gehien eskatzen daben zerbitzua telelaguntza zerbitzua da. Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzako zerbitzua izan arren gukeskabideak egiten doguz bertotik. Eskualdean 587 zerbitzu dagoz martxan geure herrietan"*, azaldu dabe eskualdeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatekoek. Herriz herri, zerbitzu hau gehien erabiltzen daben herriek Gernika (371), Mundaka (43), Muxika (28), Busturia (26) edo Ibarangelu (22) dira.

Zahartzea nabariagoa da landa-inguruan. Azken datu estatistikoaren arabera, herri txikietan pertsona nagusien portzentaia handiagoa da.

Estatistiken arabera (biscaytik/Eustat) Busturialdeko biztanleria zaharkitua da eta bizi-itxaropena handia da bertan.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko datuei erreparatuta (2017ko txostena), 60 urtetik gorako biztanleria kontuan hartuz, herri gehienetan, emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino altuagoa da. Hau da, emakumezkoen bizi-itxaropena gizonezkoena baino handiagoa da bertan, Euskadiko bizi-itxaropenaren joera bardina jarraituz. 2016an Euskadiko bizi-itxaropena emakumezkoen kasuan 86 urtekoa zan eta gizonezkoena, ordea, 80,5ekoa. Baina salbuespenak be badagoz. Honen kasu, Mendata, Errigoiti edo Nabarniz herriak dira, hauetan 60 urtetik gorako gizonezko gehiago bizi dira emakumezko baino. Forun ta Sukarrietaren kasuan, ez dago ezberdintasunik gizon eta emakumeen artean, portzentaia bardina da.

Herri gehienetan, 60 urtetik gorako pertsonak 60 urtetik gorako bizikideekaz batera bizi dira. Hau da, emazte zein senarragaz bizi dira edota bere senitarteko bategaz (anai-arrebak). Baina Elantxobe, Gauegiz Arteaga, Ibarangelu, Sukarrieta eta Mundakan joera hau ez da bardina, 60 urtetik gorako pertsonak bakarrik bizi dira herri hauetan.

Zahartuz doan biztanleria izanik zerbitzuen eskaera be nabarmen igo egiten da. 2017.urtean Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 360 mendekotasun eskabide kopuru bideratu dauz; 59 laguntza teknikoaren mailegu; eta 154 pertsona jaso ebeen etxez-etxeko laguntza zerbitzua.

*"Etxez etxeko laguntza zerbitzuan eboluzino handia ikusi dogu, gehiago eskatzen da. Igaz aurrekontuen zati bat gehitu genduan zerbitzu hau emon ahal izateko, eta ez gara heltzen. Itxaron zerrendagaz gagoz."*

**Zahartzearen eta biziraupenaren erronkek administrazioa zein gizartea egokitzea suposatzen dabe. "Zahartze Aktiboa"ren alde positiboaz ohartu behar gara, formakuntza eta birziklatze profesionalan sakondu eta sistema soziosanitarioan aurrera egin.**

*2016tik 2017ra, 126tik 154ra pasa dogu, urte baten. Mankomunitateko aurrekontuaren erdia zerbitzu honetara doa. Hemen 30 pertsona daukoguz lanean, subkotratatuta, eta aurrekontua gehitu dogun arren, itxaron zerrendagaz jarraitzen dogu."*, azaldu dau Llantadak.

Etxez-etxeko zerbitzua, eguneroko jarduerak egiteko euren kabuz baliatzeko arazoak dauzketenentzako eta pertsonak etxean jarraitu dezaten laguntzeko; telelaguntza zerbitzua, arreta iraunkorrekoa, bakarrik bizi edota egunean zehar luzaroan bakarrik dauden pertsonen zuzendutakoa, mendekotasunen bat daukeen familiarteko zaintzaileei arreta eta laguntza emoteko programa, Zainduz programa, eta laguntza teknikoaren mailegua, ohe artikulatuak edo garabiak, kasuan kasu, Mankomunitateak eskeintzen dabezen zerbitzuak dira ( BGZM).



Busturialde,  
**EUSKARA** eta  
**URDAIBAIEN alde**

## Zaintzailea zainduz

Bizkaiko Foru Aldundiak oraintxu aurkeztu dau Zaintzaileen Estatutua. Honen helburua, menpekotasuna daukien pertsonen zainketa lanak aintzatestea eta laguntzea da. Beste neurri batzuen artean, prestakuntzea eta lan arloko birkualifikazionaren bultzadea dago, 2018ko irailean Zaintza Eskolea martxan jarritz.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailak emondako datuen arabera, Bizkaian gaur egun Familiako Ingurunean emoten diran Zainketengaitiko Prestazino Ekonomikoaren (PIZPE-PECEF) 17.491 onuradun dagoz, eta beste horrenbeste zaindari. Bizkaiko ohiko profila 61 urteko emakumea da; menpekotasuna II. gradukoa batez be-daukan 71 urteko pertsonaren bikotekidea edo alabea. Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko datuen arabera, emakume zaintzailearen profila zeharo aldatu da azken urteotan. Menpekotasuna daukon senitartekoa zaintzeaz gain, emakume zaintzailea etxetik kanpo egiten dau lan, eta lehen ez zan horrela. "Guk ikusten dogu zaintzaileentzako antolatzen doguzen hitzaldietan. Datozenak gero eta andra gazteagoak dira eta gero eta gizon gehiago datoz. 267 pertsona parte hartu ebeen igaz hitzaldietan, 201 andrak eta 66 gizon", azaldu dabe Mankomunitatetik.

Zaintzailea zaintzea ezinbestekoa da eta horregatik Busturialdeko Mankomunitateak hauen arreta hobetzeko asmoz, Zainduz programa garatzen dau. Gainera, "Kartera" dekretua delakoa aprobatu dantetik, eskualdeko erakudeak Busturialdeko Eguneko Zentroen plazak bideratzen dauz. Guztira, Mankomunitateak 4 plaza adjudikatzen dauz eta Bizkaiko Foru Aldundiak 40 plaza.

Zahartzeak European eragiten dauen inpaktu ekonomikoaren gaineko txostenak Bizkaian 2030. urterarte

barne-produktu gordina (BPG) apurke-apurke igoko dala ondorioztatzen dau ( % 1,5a batez besteko). Hazkunde motel honi lotuta datorren hamarkadan gizarteak egin beharreko aldaketak dagoz (Deusto BBK Behatokia ikerketa).

"Zahartzea garestia da" guztiontzat. Erakundeek diru asko emoten dabe zerbitzuen eskaerari erantzuteko eta inoiz ez da nahikoa. Izan be, zerbitzuen eskaera gora doa. Familiak sakrifizio ekonomiko handia egin behar dabe, askotan senitartekoren bat bere lana utzi egiten dau. Beste askotan ezkutuko ekonomiara jotzen da. Joera hau eskeintzen dan zerbitzuaren kalidadearen kontra doa. Etxeko nagusiak zaintzeko diru-

laguntzak kobratzen dabez askok eta diru horregaz profesionala ez dan zaintzaile bat kontratatzen dabe, gastu handi bat ebitatzeko.

Zahartzearen ranking-etan Bizkaia buru da eta Deusto BBK Behatokiaren azken txostenaren arabera "biztanleriaren zahartzeari dagokionez, Bizkaia besteherralde batzuen aurretik dago". Ikerketa honen arabera, 2050. urtean, 60 urtetik gorako pertsonak Bizkaiko biztanlegoaren %46,7a izango dira eta mundu guztian nagusien kopuru hau %12,5ean dago.

Zahartzearen eta biziraupenaren erronkek administrazioa zein gizarte egokitzea suposatzen dabe. "Zahartze Aktiboa"ren alde positiboaz ohartu behar gara, formakuntza eta birziklatze profesionalan sakondu eta sistema soziosanitarioan aurrera egin.

Etorkizunari begira, ezinbestekoa da diziplinen malgutasuna eta aniztasuna sustatzea, politikak, arauak eta zerbitzuak diseinatzeko orduan. Horrela, Busturialdean zahartze aktiboa izateko, kalidadezkoa eta geure inguruan bertan.

**Menpekotasun mailaren bat daukeen pertsonen kopurua igo egiten da, beraz, laguntza behar daben pertsonen kopurua. Eskaera hau eskualdeko landakotasunaren mailaren arabera aldatzen da bertan.**



Orain eta beti





# ALTXOR ARKEOLOGIKO EK

## HISTORIA XARMAGARRIA KONTATZEN DEUSKUE

Urdaibaiko iragana ezagutzeko, baloratzeko eta estimatzeko bisita gidatu interesgarriak eskeintzen daz “IBILBIDE HISTORIKOAK URDAIBAITIK” ekimenak. Biosfera Erreserbaren barrena murgiltzeko “Paseoak” dira, ondare naturala eta kulturala batuz; adituen laguntzagaz egindako ibilbideak, bisita didaktikoak eta atseginak eskeiniz. Garagarri eta abuztuan eskeinitako bisita gidatu hauetan, balio arkeologiko handiko baliabideak agerian jartzen dira, hauetako batzuk oraindik indusketa eta ikerketa prozesuan dagoz.

### ARROLAKO *OPPIDUM*-A

Txu-txu trenak, landarata oparoko ingurua zeharkatuz, Arrolako *oppidum*-era heltzen da, 2. Burdin Aroko herrixka gotortua (K.a IV. mendetik K.o I. mendera). Bere tamainagatik, hedadura eta kontserbazio mailagatik, Arrolakoa Burdin Aroko herrixka inportanteenetako bat da ekialdeko Kantauri aldean. Harresi zeharkezina eta defentsa sistema sofistikatuak miretsiko dozuz. Bisita osatzeko “Arrolagune”, Arrolako *Oppidum*-aren Interpretazio zentroa bisitatzen da. Bertan, *oppidum*-aren erakusketa bat dago ikusgai, ondo landutako panelekaz eta garai hartako etxola baten erreplikagaz. Oinezko bisitak be eskeintzen dira; eta bigarren urtez, bisita bereziak eskeini dira: keinu-hizkuntzan bisita berezia (abuztuak 5); eta Labayru Fundazioaren bisita berezia oinez (garagarriak 29).





## TRIBISBURUKO AZTARNATEGI ERROMATARRA

Errausketa-nekropolia da hau, K.o I. eta III. mende artekoa, Bizkaian geratzen dan bakarra. Aztarnategia hil-egitura erromatarren multzo handia da eta orain arte hamar bat aurkitu eta induskatu dira; Karratu formako 15 metro karratuko mausoleoak daukoz eta bertan ipinten ziran hildakoen errautsak. Tribisburuko aztarnategia itsasoaren mailearen ganetik 500 metro inguruan dago, Sollube mendiaren magalean. Txu-txu trenak aztarnategira igo egiten da, ibilbidea erraztuz, eta balio ekologiko handiko baso bat zeharkatzen dau. Naturan murgiltzeko bisita berezia be eskeiniko da ( abuztuak 12).



## EREÑOZAR GAZTELUA

Ereñozar mendi tontorrean dagoen baselizak Erdi Aroko iragan ezezaguna gordetzen dau, gaztelu, setio eta konkisten historiak. Kontaketa hauek eraikina inguratzen dauen nekropoliagaz osatzen dira. Bertan, garai historiko ezberdinetako biztanleen gorpuzkiak babestuta egon dira. Baselizaren barruan sarkofago bat kontserbatzen da. Talaia honetako ikuspegia zoragarria da; bertara errazago heltzeko, txu-txu trenaren bitartez egin ahal izango da ibilbidearen zati bat. Tontorrera heltzeko zati txiki bat oinez igo behar da.



## FORUKO ERROMATAR HERRIXKA

Erromak Bizkaian sortu eban kokaleku nagusia da eta horretarako Urdaibaiko bihotza aukeratu ebeen, Kristo ondoko I.mendetik V.mendera. 6 hektareako azalera eukan eta aztarnategiaren zati bat Tourseko San Martin Eleizaren azpian dago, erromatar herrixkatik 250 metrotara. Tenplu honen nabaritasunek argi azaltzen dabe gune ha okupatuta egon zala Erromako Goi Inperioko Alditik, gaur egunera arte. Hainbat alditan erabili diran nekropoli itxurako aztarnak tenpluaren lurpean ikus daitezke.



## KATILLOTXUKO ESTAZIO MEGALITIKOA

Urdaibaiko historiaurreko iraganera bidaiatzeko bisita, hileta errituei lotutako forma arkitektoniko monumentalak ezagutzeko. Oinezko ibilbidea da, 6 kilometrokoa, Busturia, Sukarrieta eta Mundakako udalerrriak zeharkatuz. Bertan, trikuharriak dagoz eta tumulu-egitura megalitikoak be. Kolektiboki erabilitako hil-eraikinak dira. (garagarrikak 21 eta 27; abuztuak 9 eta 23)



Informazioa eta erreserbak:

688.85668 - [ibilbideak@bizkaia.eus](mailto:ibilbideak@bizkaia.eus)  
[www.bizkaikoa.bizkaia.eus](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus)

# “NIRE LORPENIK HANDIENA?”

Geure urdaibaiko organoak  
berriztatzeagaz geratzen naz.”

**BENANTZI BILBAO**  
organista

Mundakak bere jaioterriak zerikusi handia izan dau bere musika zaletasunean eta bere ibilbidean be. Benantzi Bilbaok bere pasioa kutsatu egiten dau, musika sentikortasunez bizi egiten dau eta bere apaltasunak handi egiten deutso. Nazioarte mailan musikari ospetsua da, sari asko jaso dauz eta kontzertu asko emoten dauz, irakaskuntzagaz bat eginez. Maisu trebea, bokazinozko musikaria eta geure ondare musikalaren babeslea da. Bere musika ibilbidea gugaz partekatu dau Benantzik.



## UM: Non eta nola hasi zan Benantzi Bilbaoren ibilbide musikala?

Mundakan hasi zan. Mundakan ohitura eder bat egoan. Ume guztiak joaten ginala Joxe Mari Eguileorren musika eskolara. Bera zan gizon ospetsua eta horregatik Urdaibaiko organoak kontzertu zikloak darama bere izena. Etxean horrela esan eustazan: *"...eskola amaitu ondoren Joxe Mari Eguileorregana!"*. Eta horrela hasi nintzan, 5 urte gaz. Solfeoa, txistua jotzen, akordeoia jotzen... ikasten gendun. Nik beti daukadaz sasoi hartako oroimen politik eta hori da ederrena.

Bestalde, gure inguruan domeketan aitagaz mezatar joateko ohitura izan dogu betidanik. Eta sasoi haretan, Mundakan edota Bermeon be, beste herri askotan bezala, andrak beti egoten ziran elizan behean eta gizonak korura. Orduen ni joaten nintzan aitagaz korura. Han ikusten neban beti organoa ta oso musika-tresna polita zala pentsatzen neban.

## UM: Txikitatik, Mundaka eta bere musikaltasuna beti egon dira batuta zeure bizitzan, ezta?

Bai. Joxe Mari Eguileorrek itxi ebanean organistaren plaza Mundakan, Alexandre Bordas Busturikoa etorri zan herriko organoa jotzen. Orduen Alexandere hartu eustan "sekretariolez"... zan pertsonalitate gogor-ko baina nigaz oso harreman handia hartu eban. Beti egoan berak organoa jotzen eta ni bere alboan ikusten. Ni 10 urte gaz.

Juan Pedro Zelaieta abadeak oso eragina handia izan eban be nire bizitzan. Benetan bihotz honeko gizona zan. Egun batean abadeak esan eustan: *"Alexandere gaixorik dago eta denbora askotan ez da etorriko...hor daukazuz koruko giltzak, domeketan etor behar zara jotzen, egingo dozu, geldi-geldike..."*

Geroago, Joxe Mari Eguileor hil ondoren, berak martxan jarritako musika eskolagaz jarraitu behar genduala esan neutson Jesus Intxausti Iraolari, bera izan zan Mundakako lehenengo alkatea demokrazian. Espania guztian lehenengo musika eskola munizipala hauxe izan zan, orain 40 urte inguru. Orduen, 2 edo 3 nagusitsuenak, Pili San Juan, "Pili Txistu", eta beste batzuk, txikitxuei txistua jotzen edota akordeoia jotzen irakasten hasi ginan. Guk Eguileorrek markatutako bidea jarraitu genduan. Eskola

horrek jarraitzen dau gaur, ez da inoiz lotu.

## UM: Noiz eta nola bilakatu zan zuretzako musika zeure ogibidea?

Uda baten ikusi neban organo kurtso bat Donostian egoala, udako kurtso bat. Eta Juan Pedro abadeari esan neutson entzule bezala bertara joateko asmoa neukala horrela gehiago ikasteko. Lehenengotan ezetz esan eustan, baina etxera heldu nintzanean telefonoz deitu eustan abadeak esanez: *"...etorri parrokiako ofizinara"*. Joan nintzan eta gutun-azal bat emonez esan eustan: *"hartu hau eta joan Donostira"*. Diru pilo bat emon eustan matrikulea ordaintzeko. Horrek gauzak orain ez dira egiten.

18 urte egin nebazanean eta institutua amaitu nebanean, etxean esan neban niri gustaten jatana musika zala. Etxean ez ebeen ondo ikusi eta etxetik joan nintzan amagaz haserretuta...la bi urte berba egin barik egon ginan. Orduan hasi nintzan Bilboko Kontserbatorioan ikasten eta nire anai-arrebek pagatu eustazan ikasketak. Mundakako parrokiak mezatan organoa jotzeagatik dirutsu bat emoten eustan eta Bilboko Corpus Cristi-ko parrokiak be.

Eta Marketing be ikasi neban, amak esan eban moduen baina beti aman kontra.

## UM: Halan da be, Mundakako kresalatik urrun bizi zara... Musikak zeure lotura eta banaketa da, ezta?

Bai, bizimodua ez dakigu nondik lortzen dan. Urte askotan egon nintzan Mundakan bizitzen, ia 30 urte izan arte. Baina Bilbotik Donostira joan nintzan ikasten, Donostiatik

Bartzelonara, Suizara.... Ikasketak Donostian amaitu eta gero Bartzelonara joan nintzan, CESIC-en, Centro Superior de Investigaciones Científicas dalakoan, teklarako espaniar musikaren postgrado bat egiten, "Institució Milá y Fontanals"-en. Eta hortik aurrera, bestelako kurtsoak egin nebazan... gelditu barik. Donostiako kurtsoetan Suizan bizi zan australiano bat, Brett Leighton, ezagutu neban. Berak Suizan egoan irakasten eta joan nintzan urte bat beragaz ikasten.

Organoen munduan beti zagoz ikasten, organo bakoitzak berezia da. Kontutan hartu, pianoko literatura musikala 200 urtekoa dala, gutxi gora behera, 1700. urtetik honaino, baina organoa hasten da 15. mendean. Eta organo frantzesak ez dauko zer ikusirik iberiko organoagaz...literatura aparteko bat dauka bakoitzak.



Adibidez, atzo idatzi eustazan Poloniatik Moskowich herrian kontzertu bat emoteko eskatuz. Ta eskaeragaz batera bidali eustazan organoaren deskribapen osoa: tronpeta hau dauko, flauta hau, tekladua halakoa da, pedala holakoa...orduan ikasi behar dozu beti.

#### **UM: Zenbat ordu emoten dozu kontzertu bat prestatzeko?**

Bakarrik erregistroa egiteak bere denbora eskatzen dau. Etiketak ipini behar dira, ondo prestatu dana aurretik eta probau. Hori bakarrik ipintzeak eramaten dau 8-10 ordu eta gero ikasi behar dozu.

Oraintsu egon naz Parisen ondoko herritxo baten katedralean jotzen eta 4 tekladuko organoa zan, pedal handiagaz. Neure bizitzan lehen aldiz izan zan katedral bateko giltza maestra neukala ate guztiak zabaltzeko. Bertan egon nintzan goizalderarte kontzertua prestatzen katedralean eta beste 22 ordu ikasten. Hurrengo kontzertua Austrian izan neban eta tekla txiki-txikikoa zan, 17. mendekoa, guztiz ezberdina. Benetan gatza da.

#### **UM: Zein izan da zure lorpenik handiena? Zein lorpenekin sentitzen zara harroen?**

Geure Urdaibaiko organoak berriztatzeagaz geratzen naz. Ni Alikanten bizi naz eta kanpotik beti ikusten dira gauzak argiago. Orain 15 urte, Urdaibain zeozer egin behar gendula pentsatu neban, ze udan

edo Gabonetan etortzen nintzanean beti entzuten neban: *"ez dakit nongo organista hil egin da eta hor dago organoa mutuen, ez dakit non organoa ez dabil ondo eta ez dago dirurik konpontzeko..."*. Horregatik planteatu neban Urremendiren bitartez zeozer egin behar gendula geure organoak konpontzeko. Ta holan Urdaibaiko Organoak-Joxe Mari Eguileor kontzertu zikloagaz. hasi ginan orain 15 urte.

Urdaibain organo asko konpondu dira. Arratzun armonioa konponduta dago, Gernikako Mertzadarien komentuko organoa konponduta dago, Bermeoko Santa Eufemia eta Andra Marikoak, Mundakakoa, Ibarrangelukoa... Gautegiz Artegako barriztu zan...ta laster Lumokoa be egingo da. Guzti hori da lortu doguna 15 urte hauetan.

#### **UM: Beste lorpen handi bat bertoko musika ondarea publiko orokorrari zabaltzea izan da.**

Pentsa...lehenengo kontzertua egin nebanean, 2004.enean,

Gautegiz Arteagako abadeak esan eustan: *"...ez da etorriko inor, ze guk egiten doguz kontzertuak eta jende gutxi dator, ze eleiza handia da..."*. Eta etor zan jende pilo. Guk urtero badakigu eleiza guztia bete egingo dala.

Geure inguruan kultura musikala ederra daukagu eta jendea kontzertuetara etortzen da gustora. Gainera, udan Bilbotik eta Donostiatik dator jende asko uda pasatzen eta ez dator bakarrik hondartzatara edo mendira joateko.

***"Lehehengo urtetik, hasi ginanetik Muxikako organoa konpontzea daukat buruan. Euskadi guztiko organorik garrantzitsuena da. Daukagun ondarea itzela da."***



Ziur ziur 100 pertsonako bueltan datorrela kontzertu guztietara. Jende asko gainera Mundakatik. Mundakatik daukagu beti 50 pertsona inguru kontzertu guztietara datozenak. Batzuk gainera oinez datoz, ohitura hartuta.

**UM: Organo musika zaletasuna areagotzeko zer gehiago egin al da ba?**

Ba, musika eskolatan ez da irakasten organoa, hori kontserbatorietan irakasten da bakarrik, 12 urtetik gora. Orduan, datorren urtera begira edo...buruan daukat Gernikako Musika Eskolagaz edo Bermeoko Musika eskolagaz, ikastaro txiki bat egitea udan Urdaibaiko Organoen kontzertu zikloaren inguruan.

**UM: Orain arte lortutakoagaz pozik, orduan. Beste 15 urtez jarraitzerik bai?**

Bai, bai...15 edo gehiago. Osasuna daukagun bitartean bai...Nik eta nire senarra egiten dogu guztia, parrokiekaz berba egin, udaletxeekaz...Orain badakigu gauza batzuk zarratuta dagozala. Baina ez da erraza...

**UM: Zeozer geratu jatzu egiteke? Zer botatzen dozu faltan?**

Lehehengo urtetik, hasi ginanetik Muxikako organoa konpontzea daukat buruan. Euskadi guztiko organorik garrantzitsuena da. Daukagun ondarea itzela da. Adibidez, Ibarangeluko organoa apartekoa da, erregistro berezia kontserbatzen dau, Iberiar penintsulako beste hiru organok bakarrik daukate erregistro hau, "Arpa" izenekoa. Gautegiz Arteagakoa beste aldetik jotzen da eta erregistroa berezikoa da... Bizkaian dauden barroko estiloko sei organoetatik 3 Busturialdean dagoz: Axpe-Busturia Andra Maria eleizaren organoa, Ereñoko San Miguel eleizarena eta Muxikakoa. Muxikako San Bizente Martiriaren organoa (1760) ondare altxorra da, baina zeharo hondatuta dagoenez, mutuan dago. "Urdaibaiko Organoak" zikloagaz musika tresna baliotsu hau, Euskadiko zaharrenetariko bat, berreskuratzeke deialdi adoretua egin dogu beti. Baina hor ez dogu botaten aurrera ze oso txarto dago, mutuen dago denbora asko eta diru asko behar da konpontzeko, mila euro edo gehiago...



**UM: Ba al daukazu etorkizuneko beste erronkarik?**

Ez dot markatu ezebeaz, nire gaixotasuna dala eta hasten naz lotuten apurtsu bat...bidaiatzea kostaten jat.

Ni Alikanten amaitu neban nire lanagatik. Musika irakasle izateko oposaketa bat egin neban. Probintzia bakoitzean bakarrik dago irakasle batentzako plaza eta normalean ez dago plaza librerik. Alikantetik deitu eta irakasle bat behar ebeela esan eustazan. Orduan, probatzen joan nintzan. Ta hemen nago probatzen oindino, orain 25 urte.

**UM: Halan da be, faltan botako dozu zeure herria maitea. Mundakara zatozenezan zer da egiten dozun lehenengoko gauza?**

Talara joan eta geure itsasoa begiratu. Nire senarrak esaten dau Autzagaretik gatozenezan aurpegia aldatu egiten jatela eta aldatsatsue egiten dodanean Sukarrietatik pasatzean eta geure itsasadarra ikusten dodanean...



**TRANSPORTE,  
ALMACENAJE,  
DISTRIBUCIÓN...**

**LOGÍSTICA**

Txaporta Industrialdea, 2-1  
48300 Gernika – Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es



# OLAZARRA

## BURDINOLA, ERROTA ETA EMAKUME BAT, JOSEFINA

Josefina Uriartek bere oroitzapenetan gordeta daukoz Olazarra errota lanean egoan garaiak, Golako ibaian. Honen ur emaria, Arratzu eta Mendata artean, ezinbestekoa izan zan Urdaibaiko jarduera ekonomikoan. Olazarrako antxinako burdinola eta errotaren hondarrak, gaur egun landaratzaz inguratuta, garai baten izandako garrantziaren lekuko dira. Hasiera baten burdinola lez funtzionatu eban, euskal burdinaren krisialdia heldu arte, geroago errota gisa, 1975. urteko uholdeak izan arte, uraren indarra aprobetxatuz.





Errotan lanean emondako urteak nostalgiaz gogoratzen dauz Josefinak. Bizitza gogorra eta esfortzu handikoa zala gogoratzen dau, baina berak dinoenez, "nire seme-alabeei behar izan ebeen guztia emoteko aukera izan neban"

O lazarrako errota *espezializatutako azpiegitura industrial*a izan zan, bi ardatzetako irin-errota izan zan eta. Harri bi eukazan, batagaz artoa uruntzen zan eta besteagaz garia. Ezin zan harri bardina erabili. Josefina Uriartek, errotaren jabea, azpiegitura industrial honen historia hurbila kontatu deusku. *"Ni Gernika bizitzen nintzan eta 1959.enean, ezkondu nintzanez, errotara bizitzen etorri nintzan. Ez dot ezagutu burdinola martxan, bakarrik errota. Hemen hiru pertsona egiten genduan lan, guztiak familia berberakoak: nire amaginarreba, nire koinata ta ni neu. 1975. urteko uholdeetan guztia suntsituta geratu zan eta orduan alde egin behar izan genduan. Errota zan gure lan iturria. Eta ordurarte lan asko egiten genduan. Mendata eta inguruko herrietako bizilagunek euren garia edota artoa ekartzen ebeen bertan uruntzeko. Familia bakoitzak bere zereala ekarten eban. 50 kilo bakoitzeko 5 kilo errotarako ziran, garauatik banandu egiten genduan. Nire amaginarrebak esaten eustan, gerra garaian, askotan gabaz egin ebala lan, ze errota asko zarratu ziran eta askok euren seme-alabei jateko emon behar ebeen. Askotan Bermeotik be etorten zirala 2 edo 3 kilo arto uruntzeko. Beharizana zan eta kasu hoietan ezer kobratu barik egiten zan",* gogoratzen dau Josefinak.

Errota lez, jarduera bizikoa izan zan, batez be, Golako ibaiagatik. Izan be. Bizkaiko garrantzitsuenetariko bat izan zan, ur-emariagatik eta uraren indarragatik, desnibel handia zala eta. *"Presa bete arte itxaroten genduan, eta orduan, gaua zein eguna izan, jartzen genduan martxan*



## SEGURIDAD ALIMENTARIA Y SALUD AMBIENTAL

### Laboratorio

Experiencia y especialización como Laboratorio Microbiológico de Análisis de Aguas y Alimentos, así como de aire interior.

### Consultoría

Asesoramiento, Diseño, Aplicación y Control de Soluciones tecnológicas avanzadas.

### Formación

Ofrecemos capacitación en materia Alimentaria y Ambiental para aumentar el nivel de conocimientos de las personas en sus puestos de trabajo.



Polígono Industrial San Isidro II  
Idorsolo, 15 – Dpto 3.2 – 48160 Derio





## BURDINOLA

Olazarra burdinola nagusia zan, oso garrantzitsua. Sasi artean be, oraindik ura sartu eta ateratzen den guneetako arkuak eta barne egitura ikus daitekez. XVII.mendeko dokumentuetan honen aipamena egiten da baina XVIII. mendean bete-betean aritu zan: 700 burdin kintal produzitzen eban, Triano mendietatik ekarritakoa. Hauek Errenteriara eramaten ziran itsasontziz eta Mendatararte animalien gainean eramaten ziran. Burdinola Arteagatarren leinuko Montijoko kondesarena zan garai baten. Urmaela uraz betetzen zan eta uharkatik ura jausi egiten zan gurpiletararte helduz, hauek malguak eta mailuak mugituz. Harrizko horma batek zatitzen eban lantegia, hauspoak zeuden tokia, labea eta mazona zeuden tokitik bananduz. Lantegiaren ondoan biltegi handia egoan, egur-ikatzta eta burdin mea gordetzeko. Bost langilek osatzen ebeen burdinolan lan egiten eban oinarritzko taldea.

*errota. Batzutan harri biak mugitzeko indar nahikorik ez egoan eta presa bete arte ezin genduan barrero martxan hasi". Errotaren makineria egurrezkoa zan, gurpila barne.*

Errotaren mantenimendurako eta matxurak konpontzeko herritarren laguntasuna gogoratzen dau Josefinak. Gau eta egunez lan egiten zan sasoiatan, astero, garabi bategaz altzatzen ziran harriak. Garabi honen piezak oraindik kontserbatzen dira. Harriak altzatu egiten ziran goitik behera pikatzeko. Lan berezi hau alboko baserriko ailitak egiten eban. Uholdeetan errota suntsituta geratu zanean auzokoen kolaborazioa bizi zan be. 1975. urtean

izan zen hau. "Auzokoen laguntzagaz ganadua atara genduan. Ganadua ahaztu egiten da baina pertsonak ez, beraz zeuon buruak babestu, esan neban nik. Bakoitzak bere auzokoei eskeintzen eban laguntza".

Josefina emakume kementsua eta bizkorra da, bere seme-alaben, iloben edota birloben konpainiaz disfrutatzen dau. Errotan lanean emondako urteak nostalgiaz gogoratzen dauz. Bizitza gogorra eta esfortzu handikoa zala gogoratzen dau, baina berak dinoenez, "nire seme-alabeei behar izan ebeen guztia emoteko aukera izan neban".

 **Busturialdeko**  
mankomunitatea

# Jasangarritasunagaz bat!



94 625 68 84 - 94 625 47 22 / [busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org](mailto:busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org)



# DISEINUA

PÁGINAS WEB, ON LINE DENDAK  
FOLLETOS, TRIPTIKOAK, FLYER  
KATALOGOAK, PAPELERÍA, LOGOTIPOAK  
MERCHANDISING, REDES SOCIALES



Prensa oharrak,  
Dosier de prensa,  
Errebistak,  
Gabinete de prensa,  
Newsletterak,  
Edición de libros,  
Prensaurrekoak,  
Gestión de medios

# KOMUNIKAZIOA

BERRI-AGENTZIA, ZABALKUNDEA  
ETA KOMUNIKAZIOA  
AGENCIA DE NOTICIAS, DIFUSIÓN  
Y COMUNICACIÓN



*Ze ideia ona!*  
**nueva europa**  
[www.nuevaeuropa.eus](http://www.nuevaeuropa.eus)  
1995. URTETIK GERNIKA-LUMON  
DESDE 1995 EN GERNIKA-LUMO



# ERRENTERRIAKO KURTZEROA

## Erdi Arotik XXI.mendera

Bide gurutze batean, Gernika-Lumoko Errenteria auzoa eta Ajangiz, Mendata, Arratzu eta Lekeitiorako bideen artean, Errenteriako Kurtzeroa erreferente historikoa da. Ikur honek, auzoari emoten deutso izaera. Erdi Aroko batailak, tropen arteko burrukak, erromesen pasabidea... eta bost mendez zehar gertatutako guztia igartzen jako. Gorabeherak gorabehera, irmo mantentzen da.

Gernika-Lumoko Errenteriko auzoan kurtzero enblematiko hontaz harro dagoz. "Betidanik" hor egon dan monumento lez gogoratzen dogu hau. Topagunea, batzargunea eta garai ezberdinen lekuko, Errenteriako Kurtzeroak, ondare historiko zabala gordetzen dau bere baitan. Gaur egun, kurtzero hau "pseuso-errotonda" bat bilakatu da.

XVI. mendeko harrizko gurutzea da Errenteriako kurtzeroa. Gaur Gernikako auzoa dan Errenteria eta Ajangizko eleizatearen artean kokatzen da. Historialarien arabera Larrabetzuko *Goicolejea*-ko kurtzeroagaz dago lotuta.

"Gernikazarra" herriko historia taldeko kidea dan Alberto Iturriartek aipatzen dauen bezala, tradizioaren arabera Erdi Aroan Arteaga eta Muxikako etxeen arteko borroka bat emon zan tokian eraiki zan kurtzeroa, bizkaitar leinu bien arteko gerrateetan emondako borroka, hain zuzen be. 1445. urtean izandako burrukaren aipamen dokumentala badago. Bertan, honakoa esaten zan: "...Gernikako Errenteriatik hur burrukatu ebeen Butroitarrek eta Arteagatarrek. Burruka horretan Arteagako sei gizon eta emakume bat hil ziran eta Butroiko gizon bi. Eta Arteagako 60 zauritutak suertatu ziran". Antza danez, 1468.urtean beste burruka bat emon zan bertan baina ez dago aipamen dokumentalik.

Ama Birjina  
Kurtzeroan  
atzeko aldean.







Errenteriako Kurtzeroaren balio historikoa agerian jartzen dabezen beste data batzuk be badagoz. 1737. urtean, adibidez, Ajangizko elizatekoa zan kurtzeroa. Herriak berak parrokia propioa ez eukanez, herriko etxe bakoitza Ajangiz partekatzen ebeen lau parrokien menpe egoan. Parrokia hauen arteko liskar baten ondoren, Calahorrako gotzainak hildakoen gorpuak Errenteriako dorretxera, Errenteriako Kurtzeroaren ondora, eramatea agindu eutson Lumoko kabildoari. Urte batzuk beranduago, 1793. urtean, inor Errenteriako dorretxean hiltzen bazan horrela gogoratu eban Calahorrako gotzainak: *"...Madalenako basilizaren ondoko gunera eraman behar dira, Errenteriako Kurtzero izenekoa, (dorretxeatik 100 pausutara)"*.

Beste data garrantzitsu bat, 1835. urteko maiatzaren 2a da. Urte horretan gurutzea suntsituta geratu zan, Gernika, Lumo eta Errenteriako liberal eta karlisten tropen arteko burruken ondorioz. Kainoiek gurutzea suntsitu ebeen baita Madalenako basiliza be. Ajangizko udal artxiboa eta auzoko baserri asko be hondatuta geratu ziran. Mertzedeke eleizea be erre egin zan gatazkan.

1893. urtean Ajangizko udaletxeak konpondu eban kurtzeroa eta deialdi publikoaren bitartez egin eban, 766 errearen aurrekontuagaz.

Errenteriako kurtzeroa ez da *"apartekoa"* eta era honetako gurutzeen berezko ezaugarriak betetzen dauz: Erdi Aroko burruka bat emon zan lekuan dago eraikita, bidegurutzea da eta beste batzuk bezala, "Bidean" dago. Errenterikoa bezalako gurutze asko aurkitzen dira Donejakue Bidean, Gainera, Marmiztik Errenteriara heltzen zan Donejakue Bidearen zati bat eta handik itsasadarra igarotzen zan, Ibinariagatik edota 1540. urtean Errenteria eta Gernika artean altzatu zan zubia zeharkatuz.

Geroago, Errenteriako kurtzeroa lekuz aldatu da askotan. 1997. urtean, adibidez, Errenteriako zubian burutu ziran lanen ondorioz. Istripu larriren bat be jasan dau, horren kasu, 2013. urtean gertatutakoa. Kamioi batek gurutzea bota eban eta monumentua guztiz suntsituta geratu zan. Zoritxarreko istripuaren ondoren, barriztate prozesu sakona burutu zan. *"Lan hauek gataxak eta neketsuak izan dira. Neurri ezberdineko zati askotan apurtuta egoalako. Bere lekuan geratu ziran zati bakarrak plintoa, hiru eraztun borobilez osatuta, eta harroina izan ziran"*, azaldu dau Gernikazarrako Alberto Iturriartek.

Berreraikuntzaren ondoren, monumentua babestuta geratu zan plaza baten, *"semi-errontonda"* formakoa, Argatxa Taberna zaharraren aurrean.



Kristoa Kurtzeroaren aurreko aldean.

#### DESKRIBAPENA

Hareaharrizko gurutzea da, oinarria edo plinto biribilagaz, silarrizko hiru eraztunez osatuta.

Honen gainean, harri angeluzuzenako oinarria dago, barruan landutako zirkuluekaz apaindutako laukiak dagoz. Fuste leunako habe-harria altzatzen da (behean zirkulu formako apaindurak), kiribilezko kapitelan amaituta, bertan gurutzea dago.

Gurutzean Kristo gurutzefikatuta nabarmentzen da aurrekaldean eta Ama Birjina Semea besoetan duela atzeko aldean.



# AZELGA, gogaikarr ia?

Azelga ezaugarri eta aukera askotako barazkia da, nahiz eta askotan ospe txarra izan. Azelga ortuarien artean txarria okeletan dan bezala dala esan dezakegu, hau da, “*guztia aprobetxatzen da*”. Ortu guztietan eta urte guztian dagoz azelgak landatuta. Osasunerako onuragarria eta ustekabeko gozoa ahosabaian, azelga ondo ezagutzea merezi dau.

**H**istorian zehar asko estimau da barazki hau. Bere jatorria milaka urte atzera dago. Azelga oinarritzko janaria zan Erdi Aroan European eta K.a-ko V. mendean greziarrek jaten ebeen. Azelga erraza da landantzea, urte guztian zehar, eta barazki hau jateak geure osasunean onura ugari ekartzen dau. Gainera azelgatik guzti-guztia aprobetxatzen da.

Makala dala emoten badau be, urte guztian landatzen da. Bariedade batzuk udabarrikoak dira eta beste batzuk udazkenekoak. Azken hauek neguko hotzaren aurrean gogorrak dira. Ortutik batuta orduan bilakatzen da hauskorra, bost egunez besterik ez da kontserbatzen eta.

Geure ortuetan gehien ikusten dan bariedadea berde koloreko hosto handiko azelgak dira eta hauek nerbio zuriak dauzkate. Pezioloak, azelgaren orri-mamiak zurizkak dira. 'Ginebra', 'Rey de invierno' edo 'Lucullus' dira bariedade hauek, baina izen zientifikoa *Beta vulgaris* da.

Espinakaren *lehengusina* dan barazki honetatik guztia jaten da, azelgatik orri-mamiak eta hostoak jaten dira. Kimuak eta landara bigunak entsaladatan gordinik jan ahal dira.

Ortutik batzeko edota hauek erosteko orduan, hostoak berde kolore bizikoak izan behar dira, ez dira zulotuta egon behar eta mamintsuak eta ederrak izan behar dira.



Orri-mamia zuria izan behar da. Orri-mami gorriak dauzkan bariedade bat dago be baina hauek ortuak, lorategiak edota balkoiak apaintzeko erabiltzen dira.

Azelga ortutik batzeko kanpoko hostoak hartu behar dira, handienak, eta gainontzeko landara bertan mantendu behar da. Horrela uzta hilabete askotan zehar mantentzen da.

Baina bere ezaugarri nutrizional anitzengatik da garrantzitsua azelga. Kaltzio iturri ona da, osteoporosia prebenitzeko oso onak. Bitamina A, C eta K dauzka. Potasion, magnesion eta azido folikon aberatsa da. Arazo

gastrointestinalak izan ezker ez jatea gomendatzen da, izan be, kaka eragilea da, fibra edo zuntz asko daukalako. Beste onuren artean, idorreriaren kontra egiten dau, anemiari aurre egiten deutso, hazurrak indartu egiten dauz eta argaltzeko lagungarria da, asebetetu egiten dau eta kaloria gutxikoa da ( 20kcal/100g).

Azelgaren trukua *maitasunez* sukaldatzea da eta zaporearen oreka bilatzea. Patatakaz, arrozean txikituta, tortillan edota purean... saiatu eta harrituko jatzu.

## Ba al zenekien...?

- Ortutik batzen danetik jan egiten danerarte askorik ez igarotzea gomendatzen da, bitaminak galdu egiten diralako eta hostoak mingots zaporea hartzen dabelako.

- Azelga egostea (25-50g ur litro bakoitzeko) idorreriaren kontra egiteko ona da, gernu-aparatuaren hanturarako, hemorroide edota dermatosiarako be.

- Azido folikoa eta flavonoids-en ekarpenagatik ona da minbizia prebenitzeko.

## "Azelgak Euskal Erara"

### Osagaiak:

- Azelga sorta 1
- 4 patata
- Oliba-olioko 4 koilarakada
- 4 berakatz-ale
- Urune eta arrautza
- Prijidutzeko oliba-olioa
- Gatz pitin bat

- Enborrak hosto berdeetatik kendu. Hauei hariak kendu eta orri-mamiak zatitu. Hosto berdeak garbitu eta tira luzetan txikitu.

- Patatak egosi, behin moztuta, baita orri-mamiak be, su txikian (20 minutu eta gatza bota). Orri-mamiak urunetik eta arrautzatik pasatu eta prijidu.

- Beste zartagin baten, oliba-olioko 4 koilarakada bota, berakatz txikituta eta hauek gorritu. Hosto berdeak gehitu. Prijidu eta patata egosia eta salda gehitu.

- Patatak eta prijidutako azelga hostoak zerbitzatu eta azelgaren orri-mamiekaz estali.



# Gure eskualdea bermatuz

Landa Garapen Elkarte / Domingo Alegria enparantza, 7/g - 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)  
Tel: 94 625 76 09 / [www.urrremendi.org](http://www.urrremendi.org) / [urrremendi@urrremendi.org](mailto:urrremendi@urrremendi.org)



# SUKARRIETAKO PONPAKETA-ESTAZIOA, URDAIBAICO SANEAMENDUKO BIHOTZA

Sukarrietako Marisma Bideko parkeak Urdaibaiko saneamenduko kudeaketa jasangarria bermatzeko “oinarrizko pieza” bat gordetzen dau: ponpaketa-estazioa. Mundakako itsasadarraren ezkeraldeko saneamendu sarea osatzeko atal nagusia da hau. Hondakin-urak batu eta araztegi helaraztea da bere eginkizuna. Hiru urteetako lan garrantzitsuak emon dira horretarako eta hauen amaiera laster helduko da.

Lur-azpian, Sukarrietako Marisma Bideko parkearen azpian, hain zuzen be, Urdaibaiko Saneamendu Planaren lanik garrantzitsuenetariko bat dago. Azpiegitura konplexu honek Busturialdeko ur-zikinen saneamendu eraginkorra bermatzea bideratuko dau. Sukarrietan eraikitako ponpaketa-estazioaren eginkizuna Mundakako itsasadarraren ezkeraldeko hondakin-urak eta eskumaldekoen zati bat be hartzea izango da. Gero honek, guzti-guztiak Lamiarango araztegi helaraziko dauz. Horrela, eskualdean dagozan lurraren gorabeherak

edota elementu orografikoak libratuko dira. Proiektuak erronka hauei aurre egin behar izan deutse.

Lanen ondoren bertako lurak bardin geratuko dira, parke publiko lez bere erabilgarritasuna eta itxura berreskuratuz. Lurren mugak eta ponpaketa ahalik eta itsasadarratik hurbilen kokatu behar izateak, konplejutasun handiko lana izatea ekarri dau. Izan be, azpiegitura lur-azpian eraiki da, itsas mailatik behera. Lan hau ezkututan gordeta geratu behar izatea erronka handia izan da. Bistatik kanpo geratu



*Zaindueta gozatu*

rratzu





Sukarrietako ponpaketa estazinoko lanak, parkeko lurazpian.

## Ingeniaritza zibileko eraikuntza-lan garrantzitsua

Ponpaketa-estazioaren eraikitze lanak bukatu ondoren, ekipamendu teknologiko moderno bat ezarri eta beharrezkoak diren frogak burutu ondoren, Busturiako San Kristobaletik Sukarrietara doazen kolektoreak jarriko dira martxan. Sukarrietatik Bermeon dagoan Lamiarango araztegirarte helduz. Sukarrietako ponpaketa-estazioa irailerako martxan egotea aurreikusten da, hasierako frogen arabera.

Lan hauek inbertsioa 12.500.000€koa izan da, Eusko Jaurlaritzak finantzatutakoak, Urdaibaiko Sanemandu sarea egiteko aurreikusitako 49 milioi eurotako aurrekontu osoaren barruan. Ezinbesteko lana da hau. Ur kalidade ona izateko, Urdaibaiko saneamendu eta hornikuntza sarean kudeaketa zorrotza egin behar dala agerian jartzen dau honek.

Azken helburua, urtero, Mundakako itsasadarren ezker zein eskuma hegaleko herrietako 14 milioi metro kubiko ur-hondakin isurtzea galaraztea da. Honeri esker, Urdaibaiko ura garbia, osasungarria eta biodibertsitatea errespetatzea lortuko da. Bi urte barru lortuko da erronka hau, 2020. urterako.

behar izan da, parkearen erabilpenerako oztoporik ez suposatzeke. Parke hau Sukarrietan enblematikoa da eta asko erabili da betidanik.

Horretarako, lurpean gordetako kajo handi bat egin da, 40x40 metrokoa, hormigoizko 300 habeen gainean jarrita. Kajoia hermetikoa da eta 5 metrotik gorako altuera dauko. Oso handia izan arren, guztiz ezkututua geratu da parkearen azpian.

Sekulako lana izan da eta delikadua aldi berean. Bertan esfortzu tekniko eta ekonomiko handia egin dau URA-k, Uraren Euskal Agenciak.



## UDAZKENA - OTOÑO

Iraila / Septiembre	Urria / Octubre	Azaroa / Noviembre	Abendua / Diciembre
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
3 4 5 6 7 8 9	1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4	1 2
10 11 12 13 14 15 16	8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11	3 4 5 6 7 8 9
17 18 19 20 21 22 23	15 16 17 18 19 20 21	12 13 14 15 16 17 18	10 11 12 13 14 15 16
24 25 26 27 28 29 30	22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25	17 18 19 20 21 22 23
	29 30 31	26 27 28 29 30	24 25 26 27 28 29 30



■ Bisita berezia Arrolara oinez 5€ / Visita especial al Oppidum de Arrola a pie 5€

Arrolagune Arrolako Oppidum-aren Interpretazio Zentroa da, Arratzuko Arrola mendian kokatutako aztarnategi arkeologikoa. Honek Bigarren Burdin Aroko herrixka gotortuaren aztarnak erakusten ditu, bertako bizimodua islatuz. Bizkaiko historia ezagutzeko ezinbestekoa.

Zabalik, markatutako asteburutan. Bisitatzeko ordutegia: 10:00 h. -14:00 h. (Bisita gidatuak/Taldeak, aurretiz erreserbatu)

Arrolagune es el Centro de Interpretación del Oppidum de Arrola, yacimiento arqueológico del monte Arrola (Arratzu), que muestra en detalle y recrea la vida del poblado fortificado de la 2ª Edad del Hierro, clave para conocer la historia de Bizkaia.

Abierto, los fines de semana señalados. Horario de visitas: 10:00h.-14:00h. (Visitas guiadas/Grupos, reserva previa)

VEN Y DESCUBRE  
COMO SE VIVIA EN URDAIBAI  
hace 2300 años

ZATOK ETA EZAGUTU  
ZELAN BIZI ZIREN URDAIBAIN  
orain 2300 urte



Erreserbak: Astelehenetik Barikura  
Reservas: Lunes a Viernes 10:00 h. - 14:00h.  
Tel.: 634 24 37 62  
Email: arrolagune@visiturdaibai.com

Sarrera / Entrada General: 3€  
Jubilatuak / Jubilados: 1€  
12 urtetik beherakoak: Doan  
Menores de 12 años: Gratis

Beti-Jai

# GARGANTUA

tripandia, onkotea eta parrandazalea



Erraldoi maitekor eta festazale honek, aho zabalik, betidanik Euskadiko hainbeste herrietako jaietan parte hartu dau. Jatorra eta jostagarria da ume askorentzat baina beste batzuk beldurra diote. Izan be, handikoteak bere ahotik sartzen diran ume guztiak irentsi egiten dauz. Kalera irten zan lehenengoa Bilbokoa izan zan 1845. urtean eta karlistadan suntzituta geratu zan (1874). 1897.enean berriro agertu zan. Geurea, Gernikakoa, haren bikotxa izan zan eta 1915. urtean estreinatu gendun.

**ferrovial**  
servicios

**SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO  
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE**

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27

Arrien Optika 

Urkieta k. 10  
Tel./Fax: 946 25 63 63  
Email: [arrienoptika@yahoo.es](mailto:arrienoptika@yahoo.es)



**G**argantua Bilbon jaio zan, 1854.eneko Aste Nagusian eta suhiltzaile baten burutazinoa izan zan. Antonio Echaniz suhiltzaileak sortu eban, artisau bikaina zan. Pertsonaia "Gargantua eta Pantargruel" frantziar elaberrian oinarrituta dago, Rabelais literato frantzisarrarena. Bertan, Gargantua Grandgousier eta Gargamelle erraldoien semea zala kontaktzen zan. *Bilbainada* bat izan zan, "los pasteleros" kuadrillaren asmazino bat. Lagun talde honek dibertitzeko eta Bilboko jaietan ondo pasatzeko asmoa euki ebeen. Lehen egun horretan "milatik gora ume irentsi ebazala..." kalkulatzan da. Horrela aipatzen dau Gernikazarrak, Gernika-Lumoko Historia Taldeak (aipamena G y C erakusketaren katalogoa).

Pertsonaiak Bilboko jaietan parte hartzen jarraitu eban, karlistadan suntsitu ebeen arte, 1874. urtean. 1987. ko abuztuaren 22an barriro agertu zan El Arenal-en (Hareatzan), Higinio Basterraren eskutik, Basterra-Larrea tailerretan eginda. Gargantua horren bikotxa Gernika-Lumora etor zan, hemen geratzeko. Horrela deskribatzen dabe Gernikazarratik, 1915.urteko ekainaren 28ko Udal Osoko Bilkuraren aktaren bitartez azalduz: "...*Bilboko hirian salgai dauden sei erraldoi, lau buruhandi eta Gargantua bat erostea kudeatzea, datozen San Roke jaietarako, 3900 pezeten truke*". Urte hartako tokiko prentsak Gernika-Lumokoek egindako harrera beroa eta espektakularra aipatu eban. La Gaceta del Norte-k honako titulua jarri eban: "Ya están aquí" (Heldu dira!) eta horrela azaldu eban: "...*Gargantua errepidetik heldu zanean espektakulu dibertigarria izan zan...*". Aurkezpen ofiziala 1915.eneko abuztuaren 14an izan zan, bezperada egunean, Foruko Plazatik kalejira eginez. Orduan, idi-buztarriagaz eramaten zan Gargantua, Julian Omaetxebarriak eta Pablo Nabeak gidatuta eta danbolindero laguntzaileak Bernardo Omaetxebarria "Kataplax" eta Germán Candina ziran.

Gernikazarraren datuen arabera, Gernika-Lumoko Udalak 1915. urtean erosi eban Gargantua ha, Erraldoiak eta Buruhandiekaz batera, hasiera baten beste herri baterako egindak ziran arren. Udalak egindako inbertsioari etekina atara eutson eta Gargantua alokairuan emon eutsozan Bermeo edota Eibar bezalako herriei.

Garai baten mutikoak bakarrik sartzen ziran Gargantuan. Neskak sartzea ez zan ondo ikusten.



Gargantua Gernikan, 1925.urtean (gaur egungo Pablo Picasso kalean)

-Gargantuak, sudur puntatik epertxuntxurarte, 4,5 metroko luzeera dauko, eta hortik txapelararte, 4 metroko altuera dauko.

- Kulunka baten eraginez zarratzen da ahoa neskato edo mutiko bat sartzerakoan eta aldi berean begiak zarratzen dauz. Xehetasun distiratsu eta soinudunak gehitu dira, modernotasuna emoteko.

- Gernikako Gargantua mahoizko prakak eramaten dauz, ohiko abarkak, txapela baltza eta gorri-more koloreko blusa, Gernika-Lumoko armarrariaren omenez.

Zer idiea onal  
nueva europa



# URDAIBAI

MAGAZINE

Busturialdea eskualdeko informazio orokorreko aldizkaria

**HARPIDETU!**

Aldizkaria jaso nahi badozu, kontaktatu hemen:  
komertzial@nuevaeuropa.com

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)



Gargantua Gernikan, 2016ko jaietan.

Argazkia: Gernika-Lumoko udala.



Gargantua Gernikan, 1928 Gernikazarra Artxiboa

*Tragachicos* edo *tragaldabas* izenez ezagutzen zan Gargantua beste leku batzutan eta beti egoan herriko jaietan edota jai egun seinalatuetan, besteak beste, urriko astelehen berezietan edota ekitaldi garrantzitsuetan. Lehen eta orain, umeek bere ahotik sartzen dira eta barruan ezkutuan dagoan txirristatik bota eta handikotearen atzekaldetik irtetzen dira.

BA AL ZENEKIEN..?

- Gernika-Lumoko lehen Gargantua Bilbokoaren bikotxa izan zan eta sasoi baten munduko bakarrak izan ziran hauek.

## Gargantua, apartekoa

Garai baten Gernika-Lumoko eta Bilboko Gargantuek ziran munduko bakarrak. Gernikakoa 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketan erre egin zan eta ordutik aurrera, pertsonaia tripandi eta barregarri hau beti egoan gernikarron jaietako memorian. Gainera, beste herri batzuetara heldu zan be, besteak beste, Gasteiz, Logroño, Zaragoza edota Argentinara be.

Sasoi ha gogoratuaz eta jaietako ikono hau berreskuratzeko asmoz, Gernika-Lumoko Udalak 2016.urtean berregin eban Gargantua. Gaur egun, pertsonaia hau barriro da herriko jaietako edota ekitaldi ezberdinetako protagonista.

Garate Anaien tailerrak egin eban barriro antxinako Gargantua ha baina neurri baten barrirotuta. Gargantuek lau metro t'erdiko luzera dauko eta lau metroetako altuera eta plataforma mugikor baten gainean dago. Artisau eran eginda dago. Gernikak izan eban lehenengoko Gargantua mihimen eta oihalaz eginda egoan eta oraingoa poliéster erretxinaz eta beira-zuntzaz eginda dago. Nagusi baten pisua aguantau ahal badau be Gargantua 5 eta 8 urte bitarteko umeentzako da. Gainera, zabaltzen eta zarratzen dan eta umeak irentsi egiten dauen aho erraldoi horren aurreko beldurra kentzeko, oraingo Gargantuek aurpegi lasaia dauka, onkotearen aurpegia, hain zuzen be.

 Visit Urdaibai  
© bai Nueva Europa

**IBILBIDE TURISTIKOAK**  
Kulturalak eta ekologikoak  
**URTE GUZTIAN ZEHAR**

ERRESERBAK: [www.visiturdaibai.com](http://www.visiturdaibai.com)

 **EUSKAL SOUVENIRS**



Andra Mari kalea s/n.  
48300 **GERNIKA**  
946 251 930 - 685 758 102

[euskal.souvenirs@gmail.com](mailto:euskal.souvenirs@gmail.com) [www.euskalsouvenirs.com](http://www.euskalsouvenirs.com)



# Ongi jateak mesede egiten digu



Goi-mailako  
elikagaiak

Alimentos de  
calidad superior

Ongi jatea ez da soilik kalitatezko elikagaiak aukeratzea. Ongi jatea gure baserritar, abeltzain, arrantzale eta elikagai industriari bultzada ematea ere bada. Era jasangarrian jaki naturalak ekoitz ditzaten gure ingurune eta ekonomiarekin bat.

Horixe da ongi jatea!



**hazi**  
LANDA, ITSASERITZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA  
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

*Euskadi, auzolana*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



# 2018 URTEA IKUSKARRIA IZANGO DA BIZKAIA



**EUROPEAN RUGBY CHALLENGE CUP**  
Maiatzaren 11n eta 12an



**THE WORLD'S 50 BEST RESTAURANTS AWARDS**  
Ekainaren 16tik 19ra



**GETXO-BIZKAIKO BALKOIA**  
Irailaren 12an



**MTV SARIAK**  
Azaroaren 4an